

BERDINTASUNERAKO IBILBIDE ORRIA

BERDINTASUNA KUDEATZEKO TRESNAK



BERDINTASUNERAKO IBILBIDE ORRIA NIRE EUSKAL ETXEAN

Gure Euskal Etxean berdintasuna aplikatzeko **prozesuaren ibilbide-orria** jasotzen du dokumentu honek. Orri honen azken helburua **berdintasun-arloko ekintza-plana** diseinatzea da, gure indarguneei eta erakunde gisa ditugun erronkei buruz hausnartu ahal izateko, eta barne mailan nahiz kanpora begira egindako jardueran arreta jarrita.

Ibilbide-orri honek berdintasun-ekintzak abian jartzeko aurrez ikusitako lau pausoak garatzeko **tresnak** jasotzen ditu. Hauek dira lau pausoak: konpromisoa, diagnostikoa, nire berdintasun-proiektua eta ebaluazioa.

EKINTZA PLANAREN PAUSOA	TRESNAK
1. pausoa: konpromisoa	Zer egitura has naiteke lantzen?
2. pausoa: diagnostikoa	Zer indargune eta ahulezia ditu nire Euskal Etxeak?
3. pausoa: nire berdintasun-proiektua	Zer ekintza jar ditzaket martxan?
4. pausoa: ebaluazioa	Genero-ikuspegia txertatzen ari naiz?

1. taula. Berdintasuna kudeatzeko tresnak eta ekintza-planaren pausoak

1. pausoa: konpromisoa

Zer egitura hasiko gara lantzen gure Euskal Etxean berdintasuna sustatzeko?

Zeregina: berdintasun-jarduera bultzatzeko sustatzaile izan daitezkeen gure Euskal Etxeko pertsona garrantzitsuena/garrantzitsuenak identifikatzea. Zuzendaritza-batzordeko kideak, bazkideak eta/edo boluntarioak izan daitezke talde horretako kideak, duten interes edo sentsibiltatea dela eta, erakundearen berdintasuna sustatu nahi dutenak. Gomendagarria da taldea adin desberdinetako pertsonak osatzea, berdintasunarekiko kezka izatea eta emakumeen nahiz gizonezkoen ordezkari izatea.

Gure Euskal Etxearen berdintasun-egitura sortzeko gidari izan ditzakegun **galdera** batzuk:

Zer egitura hasiko gara lantzen gure Euskal Etxean berdintasuna sustatzeko?

Talde horretan emakumeen presentziarik badago? Eta gizonenik?

Noren esku dago jarduera garrantzitsuak garatzea?

Nor besterik inplika liteke? Zer egin beharko litzateke interesa sortzeko?

Barne mailako lantalde aktiborik badago? Zein? Berdintasuna lantzeko aprobeitza liteke? Nork osatzen du?

Zenbat gizon eta zenbat emakume daude?

Nire berdintasun-egitura:

<i>Nork osatzen du eta zer profil dute?</i>	
<i>Zenbat emakumezko?</i>	
<i>Zenbat gizonezko?</i>	

2. pausoa: diagnostikoa

Zer indargune eta ahulezia ditu nire Euskal Etxeak?

Zeregina: pauso honetan berdintasun arloan gure Euskal Etxeak zer egoera duen erakusteko argazkia egitea proposatzen dizuegu. Jarduera honen helburua da barne mailan, erakunde gisa, gure indarguneak eta ahuleziak identifikatzea eta haien inguruan hausnartzea. Eta abian jar ditzakegun erronka posibleak ezagutzea. Argazki hori egiteko, jarraian datorren taulan ageri diren galderei jarraitzea proposatzen dizuegu. Helburua ez da taulan ageri diren galdera guztiei erantzutea, baizik eta azken batean lortu nahi duguna, hau da, berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko zer egiten dugun eta nola egiten dugun ikustea. Praktika honen ondorioz berdintasuneko gure ekintza-plana etorriko da.

Hauk dira diagnostikoa egiten lagun diezaguketuen **galdera** batzuk:

AHULEZIAK / INDARGUNEAK (Barnekoa) Balioak eta sinesmenak	AUKERAK / MEHATXUAK (Kanpoko) Ohiturak
<p>Parte-hartzea: Zenbat emakume eta zenbat gizon ezko daude nire Euskal Etxean? Nork osatzen dituzte zuzendaritza batzordeak? (Tradizionalki maskulinoak diren balioak: ekintzara bideratuta, presentzia altuarekin, zaintza-erantzukizunik gabe), zenbat gizon daude? Zenbat emakume? Berdin onartzen al da emakumeen autoritatea eta gizonena? Organigramaren barruan zer postu dituzte emakumeek eta gizonak?</p> <p>Sexuaren araberako erantzukizunak: Ba al dago alderik emakumeek egiten dituzten zereginen eta gizonen egiten dituztenen artean? Emakumeen eta gizonen eremuak hautematen dira?</p> <p>Denboraren erabilera: Kontuan hartzen da kontziliazioa? Zer ordutan egiten dira bilerak? Kontziliazioa ahalbidetzen dute?</p> <p>Indarkeria: Badakigu jazarpen sexualaren eta/edo sexuagatiko jazarpen-egoerak identifikatzen?</p>	<p>Zein da Euskal Etxea erabiltzen duten pertsonen profila?</p> <p>Espezifikoki emakumeentzako jarduerarik definitzen da? Eta gizonenik?</p> <p>Nork edo nola ordezkutzen du Euskal Etxea kanpoko ekitaldietan? Nola hartzen dute parte emakumeek eta gizonak? eta erakunde publikoekin? Horrelako ekitaldietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzen da? Landu beharreko gaiaren arabera ekintza desberdinetarako emakume edo gizonak esleitzen dira?</p> <p>Komunikazioa</p> <p>Ekitaldietako hizkuntza zaintzen da? Egiten diren kartel eta/edo jardueretan komunikazio inklusiboa kontuan hartzen da?</p> <p>Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Aldaketarako erresistentzia -Berdintasunerako sentsibilitate handiagoa -Genero-rolak -Genero-estereotipoak -Jardueren profila: maskulinizatuago edo feminizatuago.

Nire berdintasuneko **diagnostikoa** da:

Ahuleziak (barnekoa)	Mehatxuak (kanpokoak)
Indarguneak (barnekoa)	Aukerak (kanpokoak)

3. pausoa: nire berdintasun-proiektua

Zer ekintza jar ditzaket martxan?

Zeregina: nire berdintasun-proiektua martxan jartzeko, ekinean jarri behar dugu, eta horretarako, aurreko pausoa egindako diagnostikoa oinarri hartuta, gure Euskal Etxean garatzeko genero-ikuspegia jasoko duen jarduera-proposamen bat pentsatzea proposatzen dizuegu.

Jarraian datorren taula eredu gisa erabil dezakezue ekintzarako:

PROPOSAMENA

Zein da proposamen honen atzean dagoen eskuratu beharreko erronka?

- Ahuleziak
- Indarguneak
- Erronka

Zer beharko litzateke martxan jartzeko? Beharrezko baliabideak.

Zer pauso eman beharko lirateke?

4. pausoa: ebaluazioa

Zer neurritan uste duzu dagoela txertatuta genero-ikuspegia proposatutako jardueran?

Zeregina: azken pauso honetan proposatutako jarduerak genero-ikuspegia txertatuta duen egiaztatzen lagunduko digun ariketa bat egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, gure jarduerak berdintasun-irizpideak betetzen dituela bermatzeko gidari izan ditzakegun galderen zerrenda bat emango dizuegu.

Gure jardueran genero-ikuspegia zer neurritan dagoen txertatuta jakiteko **galdera** batzuk:

Jardueraren helburuan gizonak eta emakumeak behar direla planteatzen da?

Sexuaren arabera bereizitako informazioa sartzen da?

Jarduerak bermatzen du gizonek nahiz emakumeek parte hartzea?

Hizkuntzaren erabilera inklusiboa egin da?

Eta abar.